



Rocioko erromeria euriari aurre eginez

Euriak hainbat buruhauste sortu baditu ere, Semblante Andaluz-ek giro onean ospatu du erromeria

El Rocioko amabirjinaren omenezko festa handia ospatu ohi da urtero mendekoste asteburuan, hau da, Pazko egunetik 50 egunetara. Lasarte-Orian ere, Semblante Andaluz-eko fededunek egun hau ospatzen dute urtero, baina aurtengoan ez dute eguraldia lagun izan. Hala eta guztiz ere, Rocioko amabirjina herriko kaleetan barrena ibili da prozesioan eta egun osoan zehar ekintza ugari izan dituzte, tartean, meza, dantza, kantua, brindisa...

Jende ugari bildu zuen Rocioko erromeriak Okendo plaza inguruetan eta ez zen aspertzeko inongo betarik izan.

Amabirjinaren prozesioa

Azken unera arte zalantza handiak izan zituzten Rocioko anaitasuneko kideek urteroko prozesioa egin ala ez erabakitzerako orduan, euriagatik.

Azkenean ordea, fedek eguraldiak baino indar gehiago duenez, herriko kaleetan barrena ibili zen Rocioko amabirjina eta Arantzazuko Amaren eliza barnean zein San Pedro elizaren kanpoaldean kantatu eta dantzatu egin zioten.

Goizean meza berezia

Urtero bezala, aurtengoan ere meza berezia prestatu zuten egun seinalaturako. Bertan, Semblante Rociero koruak

emanaldi txiki bat eskaini zuen mezak iraun zuen bitartean.

Ekintza ugari egun berezian

Aurrez esandako guztiaz gain, hainbat momentu eta bizipen utzi zituen Rocioko erromeriak.

Besteak beste, Arroyok irabazi zuen patata-tortila txapelketa, Errenteriako Aljarafe eta Concha Rociera zein Lasarte-Oriako Sentimiento Andaluz-en kantu emanaldia, 170 lagunentzako paella...

Ostean etorri zen ohorezko ardoaren brindisa, bertan izan ziren Abdon Fernandez Semblante Andaluzeko lehendakaria, Pablo Barrio alkatea zein kolore guztietako zinegotziak etxe gonbidatuetako kideekin batera. Arratsaldean, Irun, Errenteria eta Andoaingo dantza-taldeak aritu ziren sevillan dantzatzeko giro ederrean.



4 MUSIKA

Makulu Ken taldearekin solasean aritu gara

Herriko taldeak ostiralean aurkeztuko du bere lehen diskoa Iruin sagardotegian festa batekin, 21:00etan. Ez da nobedade bakarra, Bea Hurtado teklista sartu baita taldean.



5 URTEURRENA

LOKE-k XXV. urteurrena ospatu zuen igandean

Goizean, Michelingo frontoian argazki eta albiste erakusketaz gain, LOKE-k dituen kirol ezberdinen erakustaldia egin zuten. Eguerdian, bazkari ederra egin zuten Aginagan.

6 SQUASH

Kinin Calvo izan da garaile XXIV. squash txapelketan

Martxo eta ekaina bitartean aritu dira squash txapelketan izena eman zuten 17 jokalaririk lehian. Azkenean, Kinin Calvok irabazi zuen Iker Cañadoren aurkako finala.



ALBA

KOOKAI
NAFNAF
YERSE

ARROPA DENDA

Nagusia 65 behea • Lasarte-Oria • Tel.:943 574450

Adituak dio



Berta Egitegi

Sasoeta-Zumaburuko
ikasketa-burua

Ikasturte amaiera/
urtea amaitu da

Urtea noiz hasi eta noiz bukatzen zen galdetu zidaten behin. Urtarrilean hasi eta abenduan bukatzen dela erantzun logikoena izango da gehienentzat. Ez niretzako ordea! Eta, ez dut uste halakoa izango denik irakas-kuntzan murgilduta dabilzan askorentzat ere. Urtea, irailean hasi eta ekainean bukatzen da niretzat. Bai, hamar hilabeteko urtea!

Urteari, indarrez eta ilusioz gainezka hasiera eman ohi diogu irakasleok, eta hamar hilabetetan zehar, eskola jarduera anitzak betetzen saiatzen gara. Ez da erreza!

Bilerak, ebaluazioak, informak, aktak, memoriak, gurasoak, jaialdiak eta agurrez gain, irakasle eta ikasleen oporretako nahiak daude. Ekainean gaude, kanpai hotsak entzungo ez baditugu ere, urtea amaitzeaz dago!

Pertsianak jaisteko garaia iritsi da. Geletako ikasle eta irakasleen mahai eta aulkiei merezitako atsedean garaia iritsi zaie. Arbelak, eguneroko klarionen hautsa ez dute arnastuko. Altxor bat bezala, geletako karpeta, liburu eta hiztegiek daukaten jakinduria guztia gordeko dute hurrengoentzat. Pasilloetako horma irudiek, kolorea galduko dute udako bero eta argitasunaren poderioz. Patioek, isiltasunaren besoetan, lo kuluxka goxoak egiteko aukera izango dute behingoz, eta eskolako giltzak, denok daukagun kaxoi magiko horietako batean beste mila gauzen artean galduko dira.

Urtean zehar, bizitakoaren zati bat ordenagailuetan gordeta geratuko da, eta oroimenean, ordenagailuek gorde ezin duten gainontzeko guztia.

Ikasturtearen azkenak

Zorionekoak Landaberi eta Sasoeta-Zumaburuko ikasleak. Aurreko astean ekainean sartzearekin batera kalean beste giro bat somatzen zela aipatzen genuen eta orain bai, ez da ezer falta gure herriko haurrak oporretan ikusteko. Dagoeneko soilik goizez jardun dira gehienak eta arratsaldetan herriko plaza eta parkeak hartzen dituzte. Okendotik pasatzea besterik ez da behar hauek jolasten ikusteko.

Ikasturtea amaitzen ari dela eta ikasle, guraso eta irakasleak dagoeneko ahituak iritsi dira. Ikasleek azken indarrak azterketatan utzi behar izan dituzte eta guraso eta irakasleek ere eguneroko ordutegi eta egin beharretatik atsedean hartzeko irrikitan daude. Landaberrikoek urte guztiko tentsio eta

buruhaustea askatzeko parada izan zuten larunbatean. Bertako ikasleek ikasturtearen bukaera festa handi batekin ospatu zuten urtero bezala. Dantza, musika... denetatik ardurak alde batera utzita udan murgiltzeko.

Sasoetakoek berriz, larunbatean esango diote agur ikasturteari eta ondorioz, hau prestatzeko azken lanetan izango dira aste guztian zehar.

Irailera begira izango dira hainbat kontu, eskolaz kanpo zein ekintza aukeratu, jangelara buelta, irakasle berriak, liburuak, materiala...Guzti horiekin hasi baino lehen oporraldi ederra merezita dute guztiek beraz orain udako ekin-tzekin eta oporraldiaz gozatzea egokitzen da eta bitartean iritsiko da iraila eta erritmoa aldatzeko garaia...

Hitz eta pitz

Zer moduz ikasturte amaieran?




Maribel Callo

Ilobaren umeak zaintzen ditut astean behin, gustura, asko gustatzen zait hori. Txikiak direnez, lasai daude ikasturte amaieran, poz pozik joaten dira ikastolara. Gero udaran egun batzuetan amona batekin egongo dira, beste egun batzuetan beste amonarekin eta astean egun batean nirekin. Umeetako bat txikia da, eta ezin da txokoe-tara joan. Bestea bai.




Alex Altuna

Azterketak egun hauetan bukatu ditugu, gainera nire kasuan dena gainditu dut eta beraz lasai eta oso gustura nago orain. Uda polit eta luzea daukagu aurrean. Ikasturte bukaeran estres pixka bat izaten dugu ikasleok, azterketak aste betean, pilatuta, denak lau egunetan egin behar izaten ditugu eta, baina aurrera ateratzen badituzu, merezi du ikasi eta esfortzu txiki bat egiteak.



Saioa Perez

Azkenengo asteak gogor xamarrik izan dira azterketengatik, baina ordutegia banatu eta ondo antolatuta erraz pasatzen dira. Denetarik dago, batzuek asko kezkatzen dira, beste batzuek ez. Gainera juxtu ikasteko garaian eguraldi ona egiten du. Niri ondo joan zait eta oporraldi luze batean nago orain. Datorren urtean selektibitatea egin beharko dut eta zailagoa izango da.



Iker Ortega

Nire kasuan aurten desberdina izan da. Nahiz eta guri berez Bolonia planik ez tokatu, metodologia aldetik aplikatu zaigu: lan gehiago eta azterketa gutxiagorekin niri luzeagoa egin zait. Nik neuk hobeto funtzionatzen dut azterketekin, baina hori norberaren gaitasunen eta lan egiteko moduen arabera da. Ikasturte bukaeran lanean ere hasi naiz eta gogorra egin zait.

Iruditan



1912.urteko irudian, Oriako eskolako nesken taldea. A.Agirre

1824. urtean lehen eskola zabaldu zen Lasarten

Hernani auzoko Kontzeju etxean sortu zen 1824. urtean Lasarteko lehen eskola publikoa. 1847an bertan 31 ikasle zeuden eta honen gastuak Hernani eta Urrietako udalek ordaintzen zituzten. Diru kontuak tarteko, arazok izan ziren bi udalen artean eta bi urtez itxita egon zen eskola korregido-arearen esku hartzearekin zabaldu zen arte. Orian berriz, Brunetarrek lantegia sortu ondoren euren langileen seme-alabentzako eskolak sortu zituzten baina hauetara langileak ez zirenen haurrak ere joaten ziren. 9 urterekin lantegian hasten ziren horietako asko.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako
Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua

SAN PEDRO JAIAK

Omenduak hiru izango dira

Danok Kide, Jalgune eta Pirritx eta Porrotxentzat omenaldia



Pirritx eta Porrotx omentzeak desadostasuna eragin du udala osatzen duten alderdien artean.

San Pedrotarako hiru aste falta diren honetan hasi da eztabaida herriko alderdien artean. Udal gobernuaren erabakiz aurtengoan hiru izango dira omenduak, Jalgune elkarteak, Danok Kide eta Pirritx eta Porrotx pailazoak.

Udalak ofizialki omen- duen izenak jakitera eman aurretik, EAJ-k hainbat hedabideetara bidalitako oharren bitartez jakin ditugu hauek. Omenduak izango dira Jalgune elkarteak, Danok Kide eta Pirritx eta Porrotx.

EAJ -ren desadostasuna

Ohar honetan EAJ-k bere desadostasuna azaldu du Pirritx eta Porrotx omenduen artean izateagatik. Ohar honetan eztabaida sortzeko

asmorik ez dagoela azpimarratzen da baina "pailazo profesional arrakastua txalotu arren, omenaldi honetatik kanpo geratzea erabakitzen dute EAJko ordezkariak "persona hauek zinegotzi izandako garaian hainbat gertaeren aurrean azaldutako jarrerengatik". Garai berri batean gaudela dio oharra, "bake eta itxaropen garaia" baina oraindik urte batzuk beharko direla "zauriak ixteko" horregatik ez dute aitortpena egoki ikusten.

PSE-EE jaietatik kanpo

PSE-EEko Jesus Zaballok ordezkariak bidalitako beste gutun batean, hau Pirritx eta Porrotx omentzeagatik guztiz kontra azaldu da eta bere alderdia jaietako egitarau ofi-

zialeko ekintzetan ez duela parte hartuko azaldu du erabaki hau dela eta.

Izan ere, "oraindik ezin dugu ahaztu duela 11 urte ETAK gure kidea Froilan Elspe hil zuenean, pailazo bikoiteko kideetako bat udaleko zinegotzi izanda, honen hilketa ez zuela gaitzetsi". Bestalde, Jalgune eta Danok Kidek merezitako omenaldia jasoko dutela eta zoriondu nahi izan ditugu berean.

Udalak bere aldetik ez du eztabaida honetan sartu nahi izan eta aurreikusitako bezala, aste honetan aurkeztuko du San Pedro jaien egitaraua. Agerraldi honetan egitarauaz gain, omenduen izenak emango ditu jakitera eta jaiak iragarriko dituen kartela aurkeztuko da besteak beste.

Aurrekontuak prest

Aurrekontuak Udabatzaren aztertze prest daudela jakin arazi du Estitxu Alkorta Ogasuneko zinegotziak hedabideei bidalitako oharrean.

Ogasun batzordean maiztaren 24an aurkeztu ziren aurrekontuak eta orain batzordean landuko dira.

Eta baikor agertzen da, "hiru urtean onetsiko diren lehendabiziko aurrekontuak dira, baita agintaldi honetako lehenak".

Udalak 23.406.332,38 eurotako aurrekontua aurkeztuko du batzorrera, 2008an onetsitakoan baino %43,32 gutxiago. 2.328.316,95 euro inbertsioetarako izango dira eta 720.784,85 eurotako superabita dagoela eta honi esker, "fazio emaitza negatiboa orekatzea lortuko da".

Izaera murriztailea

Gauzak honela, Alkorta dionez, aurtengo aurrekontuak izaera murriztailea dute, "diru sarreren eta gastuen arteko diferentzietatik sortutako aurrezki netoak urriak baldintzatzen du". Ondorioz, Udalaren inbertitzeko gaitasuna murrizta da.

Gainera, beste erakundeek, hala nola, Gipuzkoako Foru Aldundiak aurreikusitako dirua biltzen ez badute udalarentako laguntzak mugatuko direla eta Lasarte-Oriako Udalak hirigintza garapeneko diru-sarrerak urriak direla aipatzen du.

Honela herritarrek arazo ekonomiko horri aurre egin ez diezaizoten, Udalak alferrikako gastuak kendu, baliabideak optimizatu eta urgentziazko eta premiazko inbertsioak bakarrik egin direla aurreratu du.

Aurrekontuak egiten igaro duten denborari dagokionez, "lantzen eman dugun denbora, aurrekontu arduratsu eta bizi dugun errealitateari doitutakoak aurkezteko" beharrezkoa zela azpimarratzen du ogasuneko buruak.

Gastua eustea

Era berean, ogasun alorra hartu zuenean, bere helburu nagusia aurrekontu eguneratuak prestatzea eta martxan jartzea zela berretsi du Alkotak.

Eta ez da lan erraza izan. Urte hasieran Aldundiari milioi bat euro inguru bueltatu behar zitzaion. Baina egindako euste lanarengatik, Udalak kopuruari erantzuteko gai eta urtea geldikinarekin itxi duela jakitera eman du, "2012 urtea segurtasun handiagoarekin ekiteko".



MUNTTERI-AEK

Errezeta goxoak euskara ikasteko

Lasarte-Oriako Muntteri-AEK euskaltegiko ikasleek, berriro ere, Lordi Etxaondo Aiala ostalaritza eskolako irakaslearen bisita izan zuten.

Oraingoan, Etxaondok foie micuit-a, patata minak, maionesa aparra eta oliba beltz magdalenak egin zituen. Errezeta eskuan zutela, ikasleek adi jarraitu ahal izan zituzten azalpenak eta galderak ere egin zituzten ostalaritza irakasleari, hala nola, oliba beltzak klasea edo maionesa egiteko arrautza erabiltzen duten.

Era berean, Muntteri-AEK euskaltegiak gogoratzen du, udan perfilen azterketak prestatzeko ikastaroak dituztela.

Ikastaro hauek 100 ordukoak dira, 60 ordu uztailan egiten dira eta 40 irailean. Saioak goizez edo arratsaldean izan daitezke taldeen arabera.

KATXALIN ELKARTEA

Bularretako minbizia aztergai

Gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio bularretako minbizia garai detektatzeari, eta horri buruz ongi informatua egotea funtsezkoa da emakume guztientzat.

Horregatik, Katxalin minbizi ginekologikoak eta bularrekoak afektaturiko emakumeen elkarteak antolatuta bularretako minbiziari buruzko hitzaldia egongo da, ostegunean, 18:00etatik aurrera, Manuel Lekuona kultur-etxean.

Hitzaldia Donostiako Instituto Onkologikoko Arrate Plazaola doktoreak eskainiko du saioa, eta bularretako minbiziaren jatorriari, esplorazioari, tratamenduari, prebentzioari eta abarri buruz mintzatuko da.

POLITIKA

Proposamen sozioekonomikoaren aurkezpena

Ezker abertzalea, EA, Alternatiba eta Aralarrek ezker soberanistaren proposamen sozioekonomikoren aurkezpena egingo dute ekainaren 13an, Manuel Lekuona kultur-etxean.

Ezkerreko lau indar soberanistek uste dute badela irtenbidea bizi dugun krisi egoeratik irteerako eta alternatiba izango den proposamena landu eta praktikan ipini beharra dagoela uste dute. Honela haien irizpideak eta ideiak azalduko dituzte asteazkenean Manuel Lekuonako hitzaldi aretoan.

ASTE BERDEA

Ekimen hoberenak bozkatu ziren

Aste Berdearen baitan herritarren ekimen berdeak jaso eta erakusketak egin zen ostiralean Okendo plazan. Honetan ekimen hoberenak bozkatu ahal izan ziren eta trukean opari bat jaso zuten herritarrek. Honekin bukaera eman zitzaion Aste Berdearen baitan antolatutako ekintzei.



Eider Ormazabal, Xabi Herrera eta Itxaso Irazustabarrena Makulu Ken musika taldeko kideak

“Disko eta taldekide berria ditugu”

■ Bospasei urteko ibilbidean ez zuen ezer kaleratua ■ Bea Hurtado teklista sartu da taldean

Ostiralean aurkeztuko du bere lehen diskoa Makulu Ken taldeak 21:00etan Iruin sagardotegian egingo den festan. Gainera taldekide berria dute: Bea Hurtado tekla-jotzailea. Seikote "beteranoak" grabatu ditu CDko abestiak, hainbat adiskideren laguntzarekin. Txus Carrascok bateria jotzen du, Iñigo Suberbiola Xuber-ek perkusioa, Unai De Andres Patxus-ek baxua eta Xabi Herrerak gitarra jo eta kantatu. Honekin batera, abeslariak Eider Ormazabal eta Itxaso Irazustabarrena dira. Gustura dira taldekideak emaitzarekin, eta ostiralean ezagutaraziko dute. 28 euro dira afaria, diskoa, kontzertua eta sorpresak. Informazio gehiago makuluken@gmail.com helbidean.

Jon ALTUNA IZA

Makulu Ken sortu zutenetik sei urtera kaleratuko du herriko taldeak bere lehen lana.

Zazpi lagun dira orain, Bea Hurtado tekla-jotzailea sartu baita taldera, baina "Makulu Ken" diskoaren grabaketan ez du parte hartu. Diseinua Brasilen egin die Tom Wright lagunak. "Ingelesa da, Nafarroako Zubietan kontzertu batean eza gutu eta bere lana gustatu zitzaigun, baina lanean hasi eta Brasileran joan zen bizitzera" kontatu digute.

Ostiralerako eskura izango du Makulu Ken-ek lehen diskoa eta gogoz daude erakusteko, biziberritu dituzten betiko kantuak eta sortu dituzten berri-berriak ezagutarazteko.

Kide berria daukazue beraz?

Bai. Aspalditik geneukan teklak sartzeko intenzioa eta aurkitu dugu pertsona.

Zer emango dio taldeari?

Armonia batez ere, eta kolorea. Taldean dena da oso erritmikoa, gitarra ere bai, eta armonikoki ahul xamarra. Haize-instrumentuak sartzea pentsatu genuen, baina bakarra gutxitxo eta bizpahiru pertsona asko ziren taldean... Teklatua oso ondo datorkigu. Bea, herrikoa da, musika irakaslea. Ondo jotzen du.

Duela zenbat sortu zen taldea?

Itxaso eta Eider duela lau urte sartu ginen taldera. Lau mutiak pare bat urte aurretik hasi baina tekla-jole batekin probatu eta urte bete alperrik galdu genuen berarekin. Gero tronpetajole batekin ibili ginen... ea jada finkatu dugun taldea.

Serioski helduko al diozue?

Denok esaten dugu baietz, baina... Diskoarekin gauzak aldatu dira: lan handia egin dugu betiko kantak moldatzen.

Kanta gehienetan bi gitarra sartu ditugu, eta ahotsarekin ere lan handia egiten ari gara. Dena den, hainbeste denbora ere ez daukagu, bakoitzak bere gauzak ditu, bere lana, bere umeak, bere istorioak...

Lehenengo diskoa da, ezta?

Bai, soilik lau kanta geneuzkan grabatuta, era narrats batean eta ez genuen kaleratu.

Orain gustura geratu al zarete?

Bai. Lan asko egin dugu.

Zer nolako abestiak dira?

Kanta batzuetan oso nabaria da Afro-Beat kutsua, beste batzuetan ez hainbeste. Funkiarekin zerikusia du, reggaearekin ere asko, nahiz eta ez den nabaritzen. Erritmoetan baino melodietan, abesteko eran... Eta rocka, noski, hor dago. Hori ukazina da.

Zeri buruzkoak dira kantuak?

Denetarik dago. Gaur egungo arazoei buruzkoak, kritikoak... Dena den, normalean oso irekiak dira, ez dute gai konkretu batez hitzegiten. Saiatzen gara unibertsalak egiten.

Norenak dira?

Diskoko gehienak Xabirenak, eta besteak Xuber-ek egin ditu.

Abestiren bat ba al daukazue besteak baino kuttunagoa?

Ama batek dioen moduan, seme alaba guztiak berdinak dira, kar, kar... Egia esan diskotan sorpresa batzuek izan ditugu, lehen gustuko geneuzkan kantu batzuek atzean geratu dira eta "alrebes".

Zein izango da udako abestia?

Elefantea, dudarik gabe. Oso erraza da abesteko.

Mendebaldeko Trena sartu al duzue diskoan?

Ez. Kantuaren aldeko taldea sortu dute facebooken, baina aspaldi ez genuen ia jotzen...



Eider, Xabi eta Itxaso, Makulu Ken-eko hiru abeslariak esan zigutenez gogoz daude lehen diskoa ezagutarazteko.



Izenarekin bada madarikazio bat, Xabi, Txus eta Eider, taldeko hiru kide behintzat egon gara eta makuluekin

tirabira egon zen, grabatuko ziren abestien gure arteko puntuaketa ez zen atera.

Reggaea da, ez dago gaizki, baina ez genuen ondo moldatzen. Beste guztiaren desberdina, umezurtz geldituko litzateke diskoan.

Nire ustez (Xabi) reggaearekiko *feeling*-a falta da taldean, denbora askoan ondo egiten saiatu arren.

Abesti berri berririk ba al dago diskoan?

Bai, bizpahiru. Azken kontzertuetan jo ditugu, inauterietan, Mauren tabernan eta Elkartasun Egunean.

Udaren atarian nola ikusten duzue zuen burua?

Jotzeko gogo askorekin. Gorpil zoroa da, diskorik ez dugu oraindik kalean, eta beharrezkoa da hori "boloak" bilatzeko.

Hala ere, ez da horren zaila. Ez da harrokeria, baina azken kontzertu gehienak eto-

ri egin zaizkigu. Kontua da leku batzuetan jo nahi dugula eta horietara iristea dela zaila. Ideia da, behin diskoa aterata, ea horietako kontzerturen bat lortzen dugun.

Gogoarekin beraz udan errepi-dera ateratzeko?

Inoiz baino gehiago, beti gustatu izan zaigu eta. Askok aipatzen da uda, egia da kontzertu handiak udan izaten direla, baina guri berdin zaigu kontzertu handia edo txikia izan.

Perkusioak garrantzi handia du Makulu Ken-en?

Bai, erritmoak du garrantzia.

Ahotsak ere bai?

Bai, azken finean kutsu afrikar hori edukita... latinoak ere badira, baina, erritmo gehienak afrikarrak dira, eta, noski, ahots eta koro asko daude.

Dantzarik egiten al dute herriko jarraitzaileek?

Bai. Hori lortzen dugu. Plazetan ez hainbeste baina taberna txikietan, hurbilago gaude-nean, giroa izaten da.

Festa bukatzeko talde egokia al da Makulu Ken?

Guk nahiago dugu lehenengo jo eta gero disfrutatua.

Kontzertu berezi edo gogoangarririk izan al duzue?

Lekunberrikoa da bat. Ondo pasatu genuelako Arantzan edo Oretetan egin genituenak ere bai, eta ondo jotzeagatik... ez dakit, kontrakoa galdetuz gero errazago esango genuke, kontzertu txarra, hori, gogoratzen dugu. Soinu ekipoa eta teknikaria kaxkarrak ziren.

Europan zehar biraren bat... kanpora joateko asmorik ba al duzue?

Momentuz ez, baina ea etortzen den, gogo badaukagu.

Taldearen izena nondik dator?

Makuluak kendu. Buruko makuluetaz ari gara, gauzak ez egiteko beti daukagu eta aitzakiaren bat.

Izenarekin bada, bestalde, maldizio edo madarikazio bat, taldean sartu eta gero hiru behintzat egon gara makuluekin, Xabi, Txus eta Eider.

Diskoa nola zabalduko duzue?

Guk banatuko dugu, kontzertuetan, tabernetan, lagunen artean, eta interneten ere jarriko ditugu kantuak entzuteko. Web orrialde bat egiten ari gara: www.makuluken.org



Federico Perez eta Joxe Manuel Múgica zikloturistak Mariano Vallés lehen bazkidea eta Jesus Diez lehendakariarekin.

25 urte kirolari emanak

LOKE-k bere XXV. urteurrena ospatu zuen igandean

Zilarrezko ezteiak ospatu zituen igandean LOKE-k, hasiera batean Michelin-en izenarekin bazen ere, urtez urte aritu da herriko kirola sustatzen eta txapeldun handiak hezten. Igandean, urte guzti hauetan egindako lana eta ibilbidea erreparatu nahi izan zuten argazki eta albiste galeria bat ipiniz Michelingo kirol-gunean. Gainera, LOKE-k ordezkari bat duen kirolen erakustaldia egin zuten han bertan eta eguerdian, Aginaga sagardotegian bazkari ederra egin zuten kide guztiek.

Jon ALTUNA EGITEGI

Lan asko egin du LOKE-k 25 urtean. Lan asko eta gogorra gainera, isilean, itzalean eta poliki-poliki egina izan da, etenik gabekoa.

Hori guztia argitara ateratzeko eguna izan zen igandekoa. Goizean Michelingo kirol-gunean mahai-tenisa, gimnastika-erritmikoa, tenisa eta judoa ikusteko aukera izan zen (atletismokoek txapelke-

tak zituzten), LOKEn historia laburtzen zuen argazki-galeria handi batekin batera.

Bazkaria eta omenaldiak

Aginaga sagardotegian 108 kide bildu zituen bazkari handia antolatu zuen LOKE-k.

Bertan izan ziren Barrio eta Arrizabalaga udal ordezkariak izan zuten LOKE-ko entrenatzaileek izendatutako kirolari onenei zegozkien sariak banatzeko ardura.

Bestalde, zuzendaritzak omenaldi xume bat egin nahi izan zuten urte guzti hauetan LOKerengatik dena eman duten Diez eta Morales nekazezinei.



Entrenatzaileek eta zuzendaritzak omendutako guztiek talde-argazkia atera zuten Aginagan bapo bazkaldu ostean.

LOKEren kirol taldeen erakustaldia eta argazki-erakusketa izan ziren goizez.

Foto depilazioa arqi pultsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Krisi garaian, guk ere esfortzua egin nahi izan dugu, gure prezioetan!

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

ADURIZ DE LASARTE S.A

Solomoa baratxuritan

Odolkia- Solomo ontzutua Etxeko txorizoa

Tripakiak- Saltxitxak Basurde burua

Txistorra Baserri pateak

BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • Tel: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

Lasarte-Oria

LABURRAK.-

LOKEko atleta gazteak ederki Zaragozan

LOKEko Itoitz Rodriguez, Ane Galardi eta Maria Eugi, Zaragozan izan ziren Euskadiko selekzioarekin. Espainiako Autonomiarako "Atletismoan jolasten" txapelketan izan ziren.

Sailkapen orokorrean Euskadiko kadete nesken taldeak 6. postuan amaitu zuen lehiaketa eta mutileak bederatzigarren. Hala ere, LOKEko ordezkariak lan ona eginzuten.

Itoitzek 600 metroko lasterketan 3. postuan eskuratu zuen eta 4x300 m. erreleboan seigarren izan zen.

Ane Galardik, berriz, hauzi hirukoitzean 6. postua egin zuen eta 4x100 metroko erreleboan hirugarren postua lortu zuen selekzioko kideekin batera.

Azkenik, Maria Eugik 300 metroko lasterketan hamaikagarren postuan amaitu zuen eta 4x300 metroko erreleboan, aldiz, laugarren izan zen.

Texas Lasartearra-ko deialdia

Texas Lasartearra elkarteak futbol taldeak hurrengo denboraldia prestatzen hasi dira.

Horregatik, herriko gazteei deialdia egiten die hurrengo egunetan ekainaren 11tik 14ra, arratsaldeko 19:30etik aurrera Michelingo kirol guneko futbol zelaira hurbildu eta maila ezberdinetako taldeetan, kadete, jubenil eta erregionalean proba egitera. Entrenamendurako arropa eraman behar dute interesatuek.

Bide batez, elkartek jakin arazten du web berria duela, cftexaslasartearra.es.tl. Honetan elkartearen eta taldeen informazioa aurki daiteke.



Giroko porrako sariak banatu ziren

Ostadar SKT-k Giroko porrako sariak banatu zituen Ainhoa tabernan lehengo astean.

Porrako irabazlea "Janires" txartela izan da eta bigarren saria "Jupiler"-rek eskuratu du. Urdaiazpikoak "Spainia doping", "Ule", "Nikola", "Goiz Eguzki", "Jauregi", "Xifo" eta "Urdaiaz-pikoman" txartelei egokitu zaie.

Era berean, Ainhoa tabernak puntu gehien lortu duen tabernaren saria lortu du, bi pertsonentzako afora Larre Jatetxean.

Elkartek ekaina amaieran Tourreko porrako txartelak jarriko ditu ohiko tabernatan.

Uztaileko kirol jarduerak

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak adin desberdinetara zuzendutako ikastaroak eskainiko ditu uztailean zehar.

12 urte baino gehiagoko gazte eta helduentzat pilates, aerobika, body pump, spinning, aquaerobika edo igeriketa ikastaroak daude. Haurrentzat, berriz, igerian egiteko ikastaroak.

Ikastaro batzuetan ordutegia aukeratu ahal da. Informazio gehiago eskuratu edo izena eman nahi duenak, kiroldegiko bulegora hurbildu edo 943 376 182 telefonora deitu behar du.

Ostadar SKT-ko futbol eskolako izena ematea

Ostadar K.F. jakinarazten du, gaur Futbol Eskolan izena emateko epea irekiko dela.

Futbol Eskolan hurrengo denboraldian egon nahi duen haurrak baldintza hauek bete behar ditu: Buruntzaldeko bazkidea izatea; Eskola Kirola egitea, 2004, 2003 edo 2002. urtean jaiotako izatea edo Lasarte-Orian bizitzea.

Eskolako arduradunek iaiz Futbol Eskolan egon ziren neska eta mutilek eta Ostadarreko bazkideek lehentasuna dutela jakinarazi nahi dute. Era berean, plazak mugatuak direla ere azpimarratzen dute.

Inskripzioa ekainaren 22a bitartean egin ahal da, Ostadarreko egoitzan, 18:00etatik 20:00tara.

SQUASHA.-



Karlos Altuna udaleko kirol-teknikaria eta Taxio Arrizabalaga Kirol eta festen zinegotziarekin batera ateratu zuten argazkia finalista guztiek.

XXIV. squash txapelketa bukatuta

Kinin Calvok irabazi du Iker Cañedoren aurkako finala

Amaitu da martxoan hasi eta ekaina bitartean iraun duen XXIV. Lasarte-Oriako squash txapelketa. Guztira 17 parte-hartzaile aritu dira aste guztioan zehar partiduak jokatu, guztira dozena bat. Larunbateko finalekin bukaera ezin hobea eman zioten txapelketari eta aurtengo garailea, Kinin Calvo izan zen, txapelkunorde berriz, Iker Cañedo; finala 3-1 set-etako emaitzarekin amaitu zen.

Partidu lehiatuak ikusitako aukera izan genuen larunbat arratsaldean herriko kiroldegian. Final handiaz gain, kontsolazio-finala eta 3. eta 4. postuak erabakitzeko partiduak izan baitziren squasheko pistetan.

Kontsolazio finala

Final honetarako Axier Munduate eta Raul Mateos sailkatu ziren. Azken honek lortu zuen garaipena, set-etan 3-0 gailendu zuen Mateos, honako emaitzekin: 15-7 / 15-12 / 15-12.

3. eta 4. postuak

Xabier Amiano eta Oswald Cañedo finalaren atarian geratu baziren ere, arantzatxoa ateratzeko aukera eduki zuten hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partiduan.

Cañedok 3-0 irabazi zuen partidua, dirudiena baino gehiago sufrituz, Amianok ez baitzizkion gauzak batere erraz jarri. set bakoitzeko emaitzak honako hauek izan ziren: 15-13 / 15-10 / 15-12.

Final handia

Partidu borrokatua izan zen, izerdi asko bota beharrekoa eta tanto ale politak utzi zituzten bai Kenin Calvok

baita Iker Cañedok ere.

Aurreko partiduetan ez bezala, honako honetan lau set jokatu behar izan zituzten txapelketa nor izango zen erabakitzeko eta azkenean balantza Kinin-en alde erori zen 3-1eko markagailuarekin.

Partidu gorabeheratsua

Lehen bi set-etan sendo aritu zen Kinin Calvo, aukera gutxi emanaz Cañedori eta gainera, sasoi onean zegoen itxura emanaz. Lehen bi set-ak 15-12 eta 15-19 irabazi zituzten gerora txapelkun izango zen Kenin-ek.

Hala ere, harentzat gauzak ondo zihoazela ziruditenean, beharokada txiki bat eman

zuen eta hirugarren set-a galdu egin zuen Cañedoren mesedetan, 9-15eko emaitzaz.

Azkenean ordea, txapelkun handiek egiten duten gisan, gorputzari buelta eman eta zituen aukeretan sinetsiz, azken set estua irabaztea lortu zuen, 15-13 hain zuzen. Azken set-arekin batera, partidua eta txapelketa ere irabazi zituen Kinin Calvok.

Txapelketaren sistema

Lehen fasean, 17 parte-hartzaileak bi taldeetan banatu zituzten eta ligilla sistema erabilia, talde txoko bakoitzeko hiru lehenengoen txapelkun fasean jokatzeko txartela eskuratzen zuten. Kanpoan geratutakoen artean egiten zen kontsolazio txapelketa.

Behin txapelkun fasean, ligilla sistema erabili zuten sei jokalaririk onenak bi finalisten izenak erabakitzeko.


Azken finean, squash-ean aritzen direnei jokatzeko eta gozatzeko aukera ematea du xede txapelketak, horren argibide, finalen ostean denek batera egindako merienda ederra.



Kinin Calvo (beltzez) eta Iker Cañedo partidu ipolita oparitu zieten ikusleei.

Agenda

Jalgi kafe-antzokia, ekaina amaiera arte



Garuna eragiteko erakusketa

“Garuna Lantzen Unibertsoan” marrazki erakusketa ikusgai dago. Endika Elizechea gazteak gaur egungo egoera desberdinei kritika egiten die bere marrazkien bitartez. Arkatzez edo errotulagailuekin egindako lanak dira, gehienak zuri-beltzean. Irudietako batzuetan koloreak ere lekua du eta batean collage teknika ere ikus daiteke.

Igandea 17, 19:30ean

“Men in Black 3” filma eskainiko dute. Sarrera, 4, 50 euro. Gaztelaniaz.

Musika

BASTERO KULTUR-GUNEA

Ostirala 15, 21:30ean

“Sortuko dira besteak” Xabier Leteren omenezko kontzertu-ikuskitza. Amets Arzallus, Pier Paul Berzaitz, Arantxa Irazusta, Petti, Eñaut Elorrieta eta Ales Sardui arituko dira beste musikari askoren laguntzarekin. Sarrera, 15 euro.

Usurbil

Hitzaldia

SANTUENEA ELKARTEAN

Astelehena 11, 16:30ean

Sexualitatearen inguruko zine-foruma egingo da, Usurbilgo Udalak antolatuta. Dinamizatzailea Elena Jimenez, Usurbilgo Sexu Aholkularitza Guneko sexologoa izango da.

Lasarte-Oria

Musika

ABEND KAFE-ANTZOKIA

Larunbata 16, 23:45ean

Transitores 50 taldearen kontzertua. Doan.

KARMENGO AMAREN KAPERA

Igandea 17, 12:00etan

Alboka abesbatzak eguerdiko meza girotu eta ondoren, kontzertu txiki bat eskainiko du.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astearte 19, 19:00etan

Udal Musika eskolako ikasleek kurtsu amaierako lehen kontzertua eskainiko

dute. Honetan instrumentu ezberdinak eta eskolako txikiak ikusteko aukera izango da.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Asteazkena 20, 19:00etan

Udal Musika eskolako ikasleek kurtsu amaierako bigarren kontzertua eskainiko dute. Zikloa amaitu duten ikasleei diploma emango zaie.

Hitzaldia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Osteguna 14, 18:00etan

Katxalin, minbizi ginekologikoak eta bularrekoak afektaturiko emakumeen elkarteak antolatuta, bularreko minbiziari buruzko hitzaldia eskainiko da.

Bestelakoak

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 22

KTG Kanpaldietako bilerak:

17:00etan, Zumaia-Bakio DBH1

18:15ean, Bortziriak DBH2-DBH4

Andoain

Zinea

BASTERO KULTUR-GUNEA

Astelehena 11, 19:30ean eta 22:15ean

Imanol Uriberen “Miel de naranjas” filma ikusgai. Ikuslearen eguna, sarre-ra 3 euro. Gaztelaniaz.

Larunbata 16, 19:30ean eta 22:30ean

“Men in Black 3” filma eskainiko dute. Sarrera, 4, 50 euro. Gaztelaniaz.

Musika

GANBARA

Asteazkena 13, 18:30ean

Zumarte Musika eskolako ikasturte amaierako kontzertuak. Gaur, piano erakustaldia.

Erakusketa

SUTEGI KULTUR-ETXEA

Ekainaren 14tik 16ra

Usurbil FT-ren erakusketa. 1976. urte-tik aurrera jaso diren argazki, artikulu, kamiseta... ikusteko aukera izango da.

Herritarren txokoa

Marrazki eta pintura ikastaroa bukatzen da

Lasarte-Oriako bizilagun elkarteak jakin arazten du datorren ekainaren 16an pintura eta marrazketa eskolak amaituko direla.

Sorgin dantzako entseguak

Sorgin dantzarako entseguak hasi dira. Astearte eta ostegunetan, 20etatik 21:00etara, egingo dira entsegu irekiak eta hauetan ohi bezala haur zein helduek parte hartu ahal izango dute.

Antolatzaileek azaldu moduan, eguraldi ona egitekotan, entseguak Landaberi BHI-n egingo dira eta eguraldi txarreko egunetan, Landaberi-Garaikoetxea eraikiner pasako dira saioak.

Gainera, gazteen zortzikotean egon nahi duten haurrek Manuel Lekuona kultur-etxean izena eman behar dute.

San Juan bezperako

soka-dantzarako entseguak

San Juan Suan Soka-dantzan aritzeko entsegu irekiak hasi dira.

Astelehenero, hau da, ekainak 11

eta 18an bilduko dira pausuak ikasi eta dantzan trebatzeko.

Entseguak Erketz EDT-k erabiltzen dituen Zumaburu eskolako lokaletan egingo dira guztiak 20:30ean. Hauetan nahi duten herritar guztiek har dezakete parte.

Irakokizunak Udalari

Lasarte-Oriako Udalak herritarren parte hartzea sustatzeko iradokizun orrialdea duela gogora arazten du. Orrialdea Udaleko harreraren dago eskuragarri, baita baita www.lasarte-oria.org orrialdean ere.

Idatzi ostean, Udaletxeko harreraren dagoen postontzi berdean utzi edo iradokizunak@lasarte-oria.org helbide elektronikora bidali behar da.

Hirigintza saila Ganbo kalean

Lasarte-Oriako udalak gogora arazi nahi du Obrak eta Hirigintza sailaren zerbitzua publikoarentzat irekita dagoela Ganbo Kaleko 1. zenbakian.

Zabaletako zozketan saritua

Zabaletako festetako zozketan saritua atera da 2.453 zenbakia. Honek Goiegin lau afari irabazi ditu.

Haurren txokoa

Bilatu hitz hauen antonimoak

S	D	J	Z	J	A	L	O	Q	P
Q	O	B	A	H	A	C	L	U	E
D	Q	U	I	M	I	C	A	S	A
H	V	X	E	P	K	K	F	C	U
F	U	O	Ñ	X	F	N	I	S	U
O	V	B	Y	C	V	M	Q	V	X
T	V	C	K	L	I	E	X	G	G
O	N	L	O	U	M	L	Q	H	V
K	S	L	Q	U	P	G	F	E	V
U	Ñ	O	O	C	W	N	T	A	U
G	I	E	I	U	A	B	Ñ	D	O
B	W	F	P	I	N	D	R	W	W
C	V	U	J	B	F	J	Q	R	D
Ñ	M	S	F	K	R	I	P	Q	E
N	P	F	B	O	Y	S	B	F	Ñ

kokolikoko.com

Gozo
Aise
Itzel
Maiz
Sendo
Bildu
Dotore
Leun
Ausart
Hurbil

Urrun
Zakar
Koldar
Narrats
Askatu
Gutxitan
Ahul
Arrunt
Zail
Garratz
Erantzuna:

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Sasoeta-Zumaburu ikastetxea LH6 maila

Maila ona Lasarteko XXIII. igeriketa sarian

- *Hernani KE, Zarautz-Balea, Ordizia KE eta Buruntzaldea IKT aritu ziren lehian larunbatean*
- *Buruntzaldea IKT antolakuntza lanetan aritzeaz gain, euren igerilariak markak jaitsi zituzten*

Urtero bezala, aurtengoan ere Buruntzaldea IKT taldeak antolatu du Lasarteko XXIII. trofeoa. Guztira 140 neska-mutil eta lau talde aritu dira uretan ahalegin betean eta bide batez denek eduki dute ondo pasatzeko aukera. Larunbateko saioan, benjaminetatik hasita absolutuetaraino aritu ziren herriko igerilekuan euren denborak jaitsi asmoz lehian. Lau modalitatetan aritu ziren, tximeleta, bizkar, bular eta krol estiloetan hain zuzen, baita errelebo libreetan ere. Benjamin eta alebinek 50 metroko probak egin zituzten, infantil eta absolutu mailen artekoak berriz, 100 metroetan aritu ziren. Aurretik ordea, aurrebenjaminen 25 metroko bi erakustaldi egin zituzten, urte osoan ikasitakoa euren senideei erakutsi asmoz.

Jon ALTUNA EGITEGI

Txikienezkat azken txapelketa izan zen larunbatekoa. Orain alebin eta benjaminen entrenatzen jarraituko dute ekainaren 22a arte, baina jolasak eta entrenamendu arinagoak dituzte zain hemendik aurrera.

Zaharrenek ordea, jo eta su jarraitu beharko dute lanean, ekainaren amaieran Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketak baitituzte helburu. Gainera, uztaila erdialdean Espainiako txapelketak edukiko dituzte Iñigo Ibarburu eta Itsaso Tolosak oraingoz; eta baita joateko aukera ugari dauzkan Haitz Mitxelena ere. Beraz, Buruntzaldea IKT-k infantil, junior eta absolutu mailan edukiko luke ordezkaritza Espainiako txapelketetan.

Antolaketa, "fenomeno"

Borja Apeztegia Buruntzaldea IKT-ko entrenatzailearen hitzak dira. Oso gustura mintzo zen proba amaitu berriaren egunak eman zuenarekin.

"Oso pozik nago, dena primeran atera da, lau talde eta 140 neska-mutil aritu dira igeri egiten eta gainera, jende

asko bertaratu da probak ikustera", zioen Apeztegiak.

Marka onak orokorrean

Orokorki hartuta, igerilariak euren markak jaitsi zituztela azaldu zuen Apeztegiak eta bi izen aipatu zituen bereziki, Iñigo Ibarburu eta Haitz Mitxelena.

Ibarburu infantilak 100m tximeletan lehendik zuen marka hobetu zuela eman zuen aditzera eta Mitxelena absolutuak berriz, 100m tximeletan minutu bateko langa zaila jaitea lortu zuela esan zuen, "ez da makala lortu duena, Espainiako gutxienekoaren jira-biran dabil eta ea horrela entrenatzen jarraituta are marka hobea egin dezakeen", zioen Apeztegiak.

Denboraldiaren balorazioa

Borja Apeztegiak denboraldiak orain arte eman duen balorazio txiki bat egin nahi izan zuen: "Hazi egin gara, zentzu guztietan gainera eta igeriketarekin gozatu nahi duen orok atea zabaldurik dituela gogoratu nahi dugu, berdin dio nolako maila duen, igeriketa egin nahi badu, gurean topatuko du



Buruntzaldea IKT osatzen duten neska-mutiek domina sorta polita eskuratu zuten eta pozik ziren probak amaituta.

lekua, ziur. Horren erakusgarri da master mailan daukagun arrakasta handia".

Taldeko bazkaria

Goizeko nekea erreperatu eta bide batez taldekideekin momentu goxo bat igaro asmoz, Goiegi jatetxean bazkaria egin zuten Buruntzaldea IKT-ko lagunek, 90 pertsona inguruko familia handian bilduta.



Hernani KE, Zarautz-Balea, Buruntzaldea IKT eta Ordizia KE taldeak aritu ziren nor baino nor errelebo-proban.

NAZAN
ZERO EARRAUSKETA

AIRE GARBIAK
BIRA NAZAN

EKAINAK 17

10:30 - 11:00 Musika eta eskulanak
11:00 - 11:30 Pirritx, Porrotx eta Marimotots
11:30 - 12:00 Bertsolariak, antzerkia, musika...
12:00 - 12:30 Mosaikoan kokatzea

12:30etan
Mosaiko erraldoia
DONOSTIA - SAGUES

DINA NAZAN

ZERO ZABOR